

**Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, 1934 - ko
Azaroaren 27-an.**

Euskaltzain jaun auek bildu dira: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Altube, Intza, Lakonbe, Elissalde. Urgazletatik: Ormaetxea, Oleaga eta Gorostiaga. Otoitzez asi da.

I.—Euskaltzainburu jaunak esan digu: *Komandante militar* jaunarengana joan dala, eskaturik oni Ekin eta beste orialdedun euskaldunai jafi dien eragozpena kentzeko. Alegiñak egin dituela, esan digu, ta bere egikizunaren laguntzailē bezela Euskaltzaindia ipiñi duela.

II.— Batzaraldi auetan egiten danez, luzaroko arloa eman zaio Iztegi berriaren lanari.

III.— Ormaetxea jaunak, erriaren abotik entzundako itz egokiak esan dizkigu. Baitare beste itz eta esakunak, bere tayu jakintunez azalduak.

Ta beste gai batzuk bigamonerako utzi-ta, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

**Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, 1934 - ko
Azaroaren 28 - an.**

Bildu diran jaunak auek dira: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Altube, Intza, Lakonbe, Elissalde. Urgazletatik: Ormaetxea, Manterola ta Gorostiaga. Otoitz egin da.

I.— Azkue jaunak, bere *Gipuzkera osotua* egin-da gero, gogapen batzuk azaldu dizkigu euskeraren ba-